



ZESTOAKO UDALA

BASERRITARREKIN BATZARRAK 2026

Lehen saioa: Arroabea, Arroaerreak, Arroagoia, Iraeta, Ibañarrieta, Narrondo

Bilera data : 2026/04/30 **Lekua** : Arroabeko Elkargunea
Hasiera ordua : 18:00 **Bukaera ordua** : 19:05

Bertaratutakoak:

J.M.M.	Kutzenea (Arroaerreak)	J.R.U.	Gure Ametsa (Arroagoia)
G.A.	Arbea (Arroagoia)	A.B.	Gure Ametsa (Arroagoia)
M.K.U.	Arbea (Arroagoia)	A.O.	Talaitxiki (Arroabea)
M.U.	Igarategi (Arroagoia)	I.E.	Zugastiberri (Arroagoia)
A.U.	Larralizar (Narrondo)	J.E.	Zugastitxiki (Arroagoia)
A.A.	Larrazabalberri (Narrondo)	I.U.	Loperenaberri (Arroabea)
J.U.	Larrazabalgoikoa (Narrondo)		
J.K.	Erkisketagoikoa (Narrondo)		
Lorea Ilundain	zinegotzia	Eva Mangas	zinegotzia
Aitor Ossa	zinegotzia	Izaskun Larrañaga	ingurumen teknikaria

1. Aurreko batzarreko eskaeren jarraipena

2024ko azaroan, Arroagoiko batzarrean, aurkeztutako eskaeren egoera azaldu da:

	ARROAGOIA (2024/11/06)	Egoera
BIDEAK	Telerrietxeberri eta inguruko baserrietara joateko bidea	Hirigintzan aztertuta eta erantzunda. Ez da bide publikoa. Bidegorria amaitutakoan egokituko da Telerietxeberriko bidegurutzeraino
BIDEAK	Larrazabalbidea egoera txarrean	Zati batzuk konponduta (2024/11/07), 2025 ekainean Narrondoko sarrera eta Larrazabalbideko hasierako atapa asfaltatu ziren. 2026an zuloak beteko dira
BIDEAK	Olaberribidea. Tunel azplan ura pilatzen da.	Konponduta. Hodi berria jarri zen ura bideratzeko
BIDEAK	Katzaolabidea egoera txarrean	Hormigolizkoa da. Katzaola baserriko azken zatia dago gaizki. Zerrendan sartuko dugu.
BIDEAK	Bideen mantenu orokorra: ubideak garbitu...	Ezin gara intsi. Puntualki egiten da. Lehen auzolanean egiten zen.
SILBO BOLA BILKETA	Arroaerrekan egitura edo edukiontzia plastikoak biltzeko	Urkomeri kontsultatu diogu eta ez dira aurreikusten. Bilketan aldsaketak egongo dira.
KOMUNIKAZIOA	Baserri batzuetara delaldia ez da iritsi: Larrazabalbideko baserriak, Gure Ametsa (Arroa)	Hurrengorako kontuan eduki. Oharra hartuta
SEINALTIKA	Arroaerrekan baserri panela erorita	Udal brigadak zutik jarrita
SEINALTIKA	Larrazabalbideko seinalizazioa puskatuta	Orokorrean zaharkituta daude. Dirulaguntzaren baten aurkezte aurreikusten da

Aitor Ossak gaineratu du silo bola plastikoen bilketarako kaiolarik ez duela aurreikusten Urkomek. Hori dela eta, gogorarazten da egutegia bete behar dela, haizearekin arazoak ekiditeko. J.E.k azaldu du Arroaerrekan, dagokion egunean plastikoak atera zituztela eta oraindik jaso gabe daudela. Urkomeri jakinaraziko zaio.

Bestalde, Aitorrek aipatu du, artilearen kasuan, aurten biltzeagatik baserritarrek ez dutela ordaindu beharrik izango. Etorkizunean artileari balorea eman eta kobratzea da asmoa.

Seinalitikarekin lotuta, Zugastiberriko I.E.k bere baserriak izenaren kartelik ez duela dio.



ZESTOAKO UDALA

Amaitzeko, M.K.U.k adierazi du Arroagoian, Toki Alaiko baserri-buzoiak ez daudela egoera onean. Udal brigadari esango diogu gainbegiratu eta konpontzeko.

2. Baserri bideen konponketak

Jakitera eman da martxoan Foru Aldundiko landa bideen dirulaguntza argitaratu zela eta *“Lasaoerrekako bidean, Otolatik Itzirako bidegurutzera asfaltoa berritzeko proiektua. Bigarren fasea”* aurkeztu dela. Bigarren fase honek 710ml ditu eta BEZ barne 68.973,51 euroko aurrekontua du (BEZ barne). Bigarren fasearekin bidea konponduta geldituko litzateke.

Horrez gainera, Lorea Ilundainek gogoratu du San Lorente bidean ere konponketa lanak egin direla, baita Trukumanbidean ere, Itzira Otolako proiektuaren lehen faseko lizitazio prozesutik gelditutako diruarekin. Bigarren faseko obra ondoren dirua geldituz gero, Santa Engrazia ingurua egokitzeko erabiltzea aurreikusten da.

Bestalde, laster udal brigada asfaltozko bideetan zuloak betetzen hasiko dela berri eman du. A.U.k eta A.A.k azpimarratu dute Larrazabalbidea ez dagoela ondo. Adierazi dute azken urteetan eskaera asko aurkeztu izan dituztela, baina bideari konponketa orokor bat ez zaiola egin.

3. Baserri bideen belar mozketak

Baserri bideetako ertzetako belarra mozteko lizitazio berria argitaratu zen duela gutxi. Guztira 61,93 km-ko ibilbidea dago jasota lizitazioan. Oraintxe amaitu berri da epea, enpresek eskaintzak aurkezteko.

Baserri bideak ekainaren amaieran-uztailaren hasieran pasatzea aurreikusten du Udalak. Hori eskatuko zaio aukeratzen den enpresari.

Zugastitxikiko J.E.k dio beraien baserri bidetik ez direla pasatzen belarra moztera. Talaitxikiko A.O.k Areitzagabidean ere ez dela bide ertzetako belarra mozten gaineratu du.

Arbeako M.K.U.k eskatu du belarra moztera pasa aurretik bertako baserriarrei abisatzea. M.U. ere ados dago. Udala, jasotzen duen informazioaren arabera, jakinarazten saiatuko da.

4. Taxibonoa

Garraio publikoa iristen ez den auzo eta baserriei zerbitzu integral bat eman nahian, sortu zen taxibono zerbitzua. Zestoan erroldatutako edozeinek erabil ahal du. Udalerri osoko baserrietara iristen da zerbitzua. 10 bidaiako bonoak 20 euro balio du eta pertsonala da. Udalak zerbitzuaren zati bat bere gain hartzen du. Aurrez taxistari deitu eta bidaiak zehazten da. Baserrietarako zerbitzua, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara dela azpimarratu du Lorea Ilundainek.

5. Zuntzaren zabalpena

Aitor Ossak aditzera eman du Espainiako Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioak dirulaguntzak eman dituela zuntza baserri guztietara iristeko. Movistarrek du horretarako baimena. Enpresei esleitu eta zuntza jartzen ari dira landa eremuetan. Legez, landa eremuko etxe eta baserri guztietara iritsi



ZESTOAKO UDALA

behar dute. Azken aldian, ordea, geratuta daude hainbat proiektu. Baserritik 400-500 metrora kaxa izanez gero, konexioa egin dezaketela informatu du Aitorrek. Norberak eskatu behar du konexioa. Movistarreko bulegora joatea proposatu du.

J.M.M.k berri eman du Ibarrolan eta Kutzenean ez dagoela zuntzik. Posteak aspalditik jarri zituzten, baina zuntza oraindik ez da iritsi.

A.A.k aipatu du Larrazabalberrin badutela zuntza.

M.U.k informatu du Igarategi inguruan telefono posteak gaizki daudela, erdi erorita. Udalak abisua pasako du.

6. “Zestotarra” proiektua

Bertako produktuen azoka egiteko saiakera egin zen, baina zailtasunak zeuden ekoizleekin. Hainbat aukera aztertu ondoren, egun, Urkomerekin lankidetzan, bertako merkatariekin batera egitasmo bat jarri nahi da abian; “Zestotarra” proiektua. Herritarrei bertako produktuak bertako komertzioetan erosteko aukerak zabaltzea da asmoa, herriko eta inguruko produktuak. Baserritarrek egindako lana eta produktuak balioan jarri eta bertako merkataritzari ere babesa eman nahi dio Udalak.

Zuzeneko salmenta egiten duten 7-8 ekoizleekin harremanetan dago Udala. Zestoako dendetan bertako produktuei etiketa bereizgarri bat jarriko zaie, produktuen eskaintza zabaldu eta kanpaina bat egingo da.

7. Beste gaiak

Azkenik gai hauek ere azaldu dira:

- **Liztor beltza.** 2026ko kanpaina apirilaren 22an hasi zen. Norbaitek habiak ikusiko balitu, abisuak emateko, Udalera deitu behar dela gogorarazi da.
- **Ispiluaren aurrean.** Energiaren inguruko eskualdeko egitasmoa da Ispiluaren aurrean. Lehen fasea duela hilabete batzuk hasi zen eta eskuorria banatu zen udalerriko etxe guztietara. Bigarren fasean klima aldaketa, energia trantsizioa, elikaduraz... hausnartzeko hitzaldiak izan dira Azpeitian, Azkoitian eta Zestean. Maiatzean saio parte hartzaileak egingo dira hiru herrietan. Zestean, maiatzaren 27an, 18:00-20:00etara, Alonderon izango da. Baserritarrek gai honen inguruan dituzten ikuspuntuak eta iritziak garrantzitsuak dira, eskualdeko udalentsat. Hori dela eta, parte hartzeko gonbidapena luzatzen da.
- **Argiola.** Argiola Energia Komunitatea martxan dago. Aurreko legealdi hasieran abian jarritako proiektua da, Udalak sustatuta. Herritar talde batek irabazi asmorik gabe, kooperatiba sortu du energia komunitatea osatzeko. Herrian lau eguzki instalazio daude eginda eta 5km-ko erradioan dauden baserriek, etxebizitzak... aukeratu dute parte hartzeko. Zestoako edozeinek parte hartzeko aukera izan dezake, autokontsumo partekatua bidez. Udalak parte hartzera animatzen ditu baserritarrak.



ZESTOAKO UDALA

- **Toki Alaiko bidegurutzea.** Bidean kotxeentzat parrilla ez dago ondo. Hori egokitu beharko litzateke.
- **Arbebidearen egoera.** M.U.k dio Tolareberri parean bidea gaizki dagoela, Arbedetik Zugasti baserrietara ere bai.
- **Larrazabalbidearen egoera.** Bidea gaizki dago, zuloa dago asfaltatu zen zatiaren ondoren.
- **Komunikazio kanalak.** Urtean zehar egingo diren hiru Baserritarren batzarretan gai berak aztertuko direla gogoratu da. Baserritarrek nahi duten bilerara joatea libre dute. "Baserritarren batzarra" webgunearen atala eta "Baserritarren foroa" whatsapp taldea daudela azpimarratu dira. Foroan sartu nahi duenak telefonoa eman dezake, informazioa jasotzeko.